



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek, bere informazio eta arretarako zentroa, kaleratzeen ondorioak jasan dituen pertsonen eskura jarteko eskatu deusie Aldundiari

Bilbon, 2013ko maiatzaren 27an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Arauz Besteko Proposamena onartu dabe gaur goizean, Bizkaiko Foru Aldundiak, “Laguntza” izeneko uritarren informazinarako eta arretarako zerbitzuaren bitartez, kaleratze prozesu batean sartuta dagozan edo dagoeneko euren etxeetatik kaleratuak izan diran pertsonen behar daben informazioa, aholkularitza eta orientazioa emateko. Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek aurkeztutako ekimenak batzarraren onspena lortu dau, talde horreetako ordezkarien aldeko botoei, Socialistas Vascos (PSE-EE) taldearen abstentzinoari eta Bildu taldearen kontrako botoei esker. Proposamen horren bitartez, Aldundiari eskaerea egiten jako, hiru hilebeteko ebaluazio epealdia igaro ostean, pertsona horreei emondako arretari buruzko txostena egin daian, “lehentasunezko” beharrak eta beharrezkoak diran arreta zerbitzuak identifiketako, gero zerbitzuak hauteman diran beharretara egokitu ahal izateko.

Horrez gain, Batzarren ekimenaren helburuen artean, kaleratze arriskuan dagozan pertsonen “berehalako arreta pertsonalizatua” eskintzea dago, behar egoera arintzeko, Administrazioaren hiru maila instituzionaletan (Udalak, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) ekonomia eta arreta arloetan dagozan prestazioen bitartez. Bi alderdi politikoak laguntzarako prozesu “integrala” sortzearen alde agertu dira. Zerbitzuak “dagoeneko existitzen dira, ezarrita dagoz. Ahalik eta ondoen egituratu behar dira, pertsona horreei arreta hoberena eskini behar deutsegu eta”, adierazo dau Esther Martínezek, PP-ko bozeroaleak.

EAJ-PNV taldearen eretziz, Foru Aldundia agente “proaktibo” bilakatu behar da, euren etxebizitza galdu daben edo galtzekotan dagozan pertsonen, euren beharretarako egokienak izango diran zerbitzuak aurkitzen laguntzeko, egoerak “oso anitzak” diralako. Proposamen “orokorra” da, eta bere helburua, “Administrazio guztien koordinazioa egituratuko dauen sistema antolatua” lortzea da, Jon Larrea batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez.

Bilduk bere Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau, baina Batzordeak atzera bota dau, EAJ-PNV eta PP taldeen botoakaz. Talde abertzaleak “aurrerago” egin gura izan dau, informazio zerbitzu horretaz aparte, euren etxeetatik kaleratutakoei laguntza juridikoa eta psikologikoa eskintzeko baliabideak jarri daitezala eskatuz. “Kontua ezin da aholkularitza eta informazioa emotera eta telefono zenbaki bat zabaltzera mugatu, baliabideak jarri behar dira. Egoera hori jasaten dabenek laguntza psikologikoa eta juridikoa behar dabe”, adierazo dau Iruñe Sotok, Bilduko bozeroaleak. EAJ-PNV



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

taldearen eretxiz, proposamen abertzalea “boluntarista” da. Larrearen berbetan, horreek “asmoak baino ez dira”, eta bat etorri da Esther Martínezegaz (PP), zerbitzu horreek “dagoeneko existitzen dirala” esatean. Talde jeltzalearen eta talde popularraren eretxiz, une honetan eskini behar dana “laguntza”, orientazino zerbitzua, da.

PSE-EE taldeari jagokonez, Bilduren proposamenaren alde bozkatu dau, eta EAJ-PNV-k eta PP-k aurkeztutako proposamenean abstenidu egin da. Sozialistak bat etorri dira koalizino abertzaleagaz, kaltetutakoek euren arazoan aurrean “berehalako” erantzunak behar dituela esatean, eta, zuzenketa-eske baten bitartez, proposamenari baliabide ekonomikoak gehitu gura izan deusiez. Horrez gain, popularrakaz eta jeltzaleakaz be ados dagoz, Aldundiak “laguntza” lanak egin eta “ibilbidea” markau daian. Juan Otermin bozeroaleak, batzordea “erantzun bakarra” emoteko gai ez izatea deitoratu dau, erantzun bakar hori kaleratzeen gaiari buruzko Adierazpen Institutuzionalaren oinarria izan eitekealako.

GUFERI BURUZKO ERANTZUNAK

Pilar Ardanzak, Gizarte Ekintzako foru diputatuak, adierazo dau Foru Aldundiak “beti” bete dauela 2001eko epai judiziala. Epai horretan, izendapen libreko postuak lehiaketa publiko prozedura bitartez betetako agindua emoten jakon GUFeri. Gai horri jagokonez, Iruñe Soto (Bildu) harrituta agertu da, aurretik “nahierara” aukeratutako 4 pertsonak diralako azkenean plaza lortu dabenak. Ardanzak “goitik behera” ezeztatu dau jokatzeko modu hori, eta lehiaketa horreetako oinarriak Enpresa Batzordeak onartu ebazala azpimarratu dau.

Aldundiko arduradunak gogoratu dau, berak esan dauenez aurreko batzorde batean be egin eban moduan, Aldundiak 2012. urtean eskini ebazan 22etatik zuzendaritzako postuak betetako GUFEn dagozan 9 plazak, “meritu lehiaketa” bitartez esleitu dirala, erakunde publiko horretako Negoziazino Mahaiak emondako aholkuak eta epai judizialak betez.

Bilduk egindako beste galdera bati erantzunez, Aldundiko arduradunak baieztatu dau Zumelegi egoitzako langile ohi batek 62.000 euroko kalte-ordaina jaso ebala, kaleratze desegoki bat zala eta. Langilearen kaleratzea justifiketako orduan esan dau Dolaretxe zentroa itxi egin zala, eta epai judizialak berak aukera hori eskintzen ebala, lanpostua desagertu egiten zalako.

Pilar Ardanzak, abogaduetan, epaiketetako tasetan, kalte-ordainetan edo ebazpen judizialetan GUFEk gastutakoari buruz koalizino abertzaleak egindako beste galdera bati erantzun deutso. Aldundiko arduradunaren berbetan, Foru Aldundiaren esku dagoan erakunde autonomoak 460.000 euro gastau ditu azkeneko 5 urteetan 99 auziri aurre egiteko (horreetatik 63 aldi baterako kontratua eukien langileek hasi ditue). Auzi horreetatik 74 Administrazinoak irabazi ditu, eta 25ek, Administrazinoaren interesen kontrako epaia jaso dabe. Diputatuaren berbetan, langileek edo sindikatuek martxan jarritako prozesu judizial horren “eragina ez da garrantzitsua”. Kontuan izan behar da



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

azken bost urteetan, 822 langile dituan GUFÉ erakunde publikoan 45.000 kontratu baino gehiago gauzatu dirala.

Beste alde batetik, Ardanzak jakinarazo dau Aldundiak arreta zerbitzua emoten jarraitzen dauela Uribarri zentroan, eta bere zerbitzuetako batzuk Txurdinagako eta Derioko zentroetara bideratu dituala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales piden a la Diputación que ponga su centro de información y atención ciudadana al servicio de las personas afectadas por desahucios

En Bilbao, a 27 de mayo de 2013.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana, en la Comisión de Acción Social, una Proposición No de Norma para que la Diputación Foral de Bizkaia “garantice, a través de su servicio de información y atención a la ciudadanía “Laguntza”, la información, asesoramiento y orientación que precisen en cada caso las personas afectadas por un proceso de desahucio o que hayan sido ya desahuciadas”. La iniciativa, presentada por los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Popular Vizcaíno (PP), ha salido adelante gracias al apoyo de los representantes de estas formaciones, la abstención de Socialistas Vascos (PSE-EE) y el rechazo del grupo Bildu. En ella, se insta al Ejecutivo foral a realizar, después de un periodo de evaluación de tres meses, un informe sobre la atención prestada a dichas personas, con el fin de que se identifiquen sus necesidades "prevalentes" y servicios de atención "correlativos", para posteriormente adecuar estos servicios a sus necesidades.

Asimismo, la iniciativa parlamentaria busca que se ofrezca a estas personas en peligro de desahucio una “atención personalizada e inmediata” para paliar la situación de necesidad, mediante las diferentes prestaciones económicas y asistenciales existentes en los tres niveles institucionales de la Administración (local, foral y autonómica). Las dos formaciones políticas son partidarias de crear un proceso de acompañamiento “integral”. Los servicios “ya existen, están establecidos. Hay que articularlos de la mejor manera posible, porque a estas personas les debemos la mejor de las atenciones”, ha manifestado la portavoz del PP, Esther Martínez.

El PNV considera que la Diputación debe convertirse en un agente “proactivo” para orientar a las personas que han perdido su vivienda o están a punto de hacerlo, a encontrar el servicio más adecuado a sus necesidades, ya que las situaciones son “muy variadas”. Es una propuesta “global” con la que se busca “un sistema organizado que articule la coordinación de todas las Administraciones”, ha explicado el apoderado jeltzale Jon Larrea.

Por su parte, Bildu ha presentado su propia Proposición No de Norma que, finalmente, ha sido rechazada en la Comisión por los votos contrarios de PNV y PP. La formación abertzale quería ir “más allá” al pretender que, además de este servicio informativo, la Diputación Foral proporcionase los medios materiales y humanos para prestar ayuda jurídica y psicológica a los desahuciados. “No se trata sólo de dar asesoramiento e información, y abrir un teléfono, sino de poner medios. Los afectados necesitan ayuda psicológica y jurídica”, ha reclamado Irune Soto, portavoz de Bildu. Para el PNV la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

propuesta abertzale es “voluntarista”. “Son intenciones”, según Larrea, quien ha coincidido con Esther Martínez (PP) en que estos servicios “ya existen”. Para la formación jeltzale y el grupo juntero popular, lo que debe ofrecerse en estos momentos es un servicio de “acompañamiento”.

Por su parte, el PSE-EE ha votado a favor de la propuesta de Bildu y se ha abstenido, finalmente en la acordada por PNV y PP. Los socialistas coinciden con la coalición abertzale en que los afectados necesitan respuestas “inmediatas” a sus problemas, entre las que pretendían sumar, por medio de una enmienda, recursos económicos, además de ayuda psicológica y jurídica. A su vez, están de acuerdo con populares y jeltzales en que la Diputación realice labores de “acompañamiento” y establezca “un itinerario”. Su apoderado, Juan Otermin, ha lamentado que no salga de la comisión una “respuesta única” que hubiera podido ser la base de una Declaración Institucional sobre la problemática de los desahucios.

RESPUESTAS SOBRE EL IFAS

Por su parte, la diputada foral de Acción Social, Pilar Ardanza, ha afirmado que la Diputación ha cumplido “siempre” con una sentencia judicial del año 2001 que obliga al IFAS a cubrir los puestos de libre designación a través de un procedimiento de concurso público. A este respecto, Irune Soto (Bildu) se ha extrañado de que 4 personas, que previamente fueron designadas “a dedo”, sean las mismas que finalmente consiguieron la plaza. Ardanza ha negado “rotundamente” cualquier irregularidad en el proceso de contratación. Ha destacado que las bases de estos concursos fueron aprobadas por el Comité de Empresa.

La responsable foral ha recordado, como ya hizo -según ella- en una comisión anterior, que las 9 plazas asignadas para cubrir puestos directivos en el IFAS, de un total de 22 que la Diputación ofertó en el año 2012, se han producido por “concurso de méritos” recogiendo las indicaciones de la Mesa de Negociación de este organismo público y el cumplimiento de las sentencias judiciales.

A otra pregunta de Bildu, la responsable foral ha confirmado que una ex trabajadora de la residencia Zumelegi recibió una indemnización de 62.000 euros a causa de un despido improcedente. Ha justificado la salida de esta empleada por el cierre del centro Dolaretxe y porque la misma sentencia judicial ofrecía la posibilidad de despido con indemnización al eliminarse el puesto de trabajo.

Pilar Ardanza ha contestado a otra cuestión de la coalición abertzale sobre lo gastado por el IFAS en abogados, tasas judiciales, indemnizaciones o en resoluciones judiciales. Según ella, el organismo autónomo dependiente de la Diputación ha desembolsado 460.000 euros en los últimos 5 años para hacer frente a 99 pleitos (63 iniciados por trabajadores temporales), de los cuales 74 de ellos han sido ganados por la Administración y 25 han concluido con sentencia desfavorable para los intereses forales. Para la diputada, este número de procesos judiciales abierto por trabajadores o



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sindicatos “no es una incidencia importante”, teniendo en cuenta que en el último quinquenio se han formalizado más de 45.000 contratos en el IFAS, ente donde trabajan 822 personas.

Por otra parte, Ardanza ha informado de que la Diputación sigue ofreciendo servicios asistenciales en el Centro Uribarri y que ha trasladado algunos de sus servicios a los centros de Txurdinaga y Derio.